



***Apirilaren 25ean, zapatua,  
12:30ean balkoitik balkoira***

*Abestuko diren kanta guztiak zuzenan eskainiko ditu Oñati Irratiak, 12:30etatik aurrera*



***Aberriaren mugak  
Aitormena  
Ala kinkiri / Erran dut  
Baratze bat  
Batasuna  
Eki eder  
Erribera***



***Euskal Herrian Euskaraz  
Lepoan hartu ta segi aurrera  
Non geratzen den denbora  
Oñatiko kale eta baserri-auzoak  
Salamankara  
Topa dagigun***



**Oñati** FM 107.4  
**irratia**



## APIRILAREN 25erako ABESTIEN ZERRENDA

<b>ABESTIA</b>	<b>ZENBAKIA LIBURU BERRIA</b>
1. ABERRIAREN MUGAK	1
2. AITORMENA	7
3. ALA KINKIRI / ERRAN DUT	8
4. BARATZE BAT	28
5. BATASUNA	29
6. EKI EDER	43
7. ERRIBERA	47
8. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ	50
9. LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA	88
10. NON GERATZEN DEN DENBORA	108
11. OÑATIKO KALE ETA BASERRI- AUZOAK	112
12. SALAMANKARA	120
13. TOPA DAGIGUN	122



## **1.- ABERRIAREN MUGAK**

(Hitzak: Joxerra Garzia / Musika: Txomin Artola)

Nire aberria lurra bezain zaharra da  
baina ez da lurra bakarrik  
haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen askatzen naularik.  
Nire aberria suaren antzekoa da  
beti bera berria beti  
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
ta erretzen ere badaki.

**Aberriaren mugak, euskararenak  
gure baitan daude gehienak  
euskara zabalduaz lau haizetara  
zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da  
hitzezkoa eta hitzezkoa  
altzairuzko txakolin ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.  
Nire aberria burdin bihurria da  
oroimenean arindua  
itsas-laminen baten herdoilezko kantu  
etorkizunez fosildua.

**Herriaren mugak, euskararenak  
gure baitan daude gehienak  
euskara zabalduaz lau haizetara  
zabalago egiten gara. (bis)**



## **2.- AITORMENA**

(Hertzainak)

Ez dira betiko garai onenak  
Azken finean gizaki hutsak gara,  
Barearen ostean dator ekaitza  
Udaberri berririk ez guretzat.  
Denborak aurrera etengabian  
Ta orain ezin eutsi izan ginana,  
Rutinaren morroiak bihurtu gara  
Laztana lehen baino lehen aska gaitezan.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta  
Ohartu gabe heldu gara mugara  
Mundua jausi zaigu gainera  
Maitia lehen baino lehen aska gaitezan.  
Ez dakigu non dagoen hoberena  
Bila dezagun beste lekuetan.

Bai, zin dagizut, ez dizudala  
inoiz gezurrilk esan eta  
Zaude ziur ezin izango  
zaitudala ahaztu inoiz,  
Aitortzen dut izan zarela  
ene bizitzaren onena,  
Baina orain maitia lehen baino  
lehen aska gaitezan.



### **3.- ALA KINKIRI**

(Herrikoia/Oskorri)

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako dama gazteak  
ez dira moja sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta  
gu bezalakoak dira,  
hola!

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako gizon gazteak  
ez dira fraile sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta  
gu bezalakoak dira,  
hola!

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako gazte guztiak  
ezkontzan dira sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta  
gu bezalakoak dira.  
hola!

#### **4.- BARATZE BAT**

(Hitzak eta Musika: Pier Paul Berzaitz)

Hau da egün eijerra  
mila xoriek kanta  
ziauri ene erregina  
besoak zuri ditizüt para.

**Baratze bat nahi deizüt egin,  
amets sekretüenekilan,  
liliak egün jauntzi eijerrenetan  
*mila kolorez dantzan bihotzetan (bis)***

Gaü beltz ta sakonetik  
elkitzen nüzü hoztürrik,  
bihotza hain tristerik  
zütaz hainen berantetsitürrik.

**Baratze bat...**

Karrosa bat hor dügü  
kanpoan gure aidürü.  
Ez gal haboro denbora  
hiskor beitago amodioa.

**Baratze bat...**

Maitarzün berriari  
ilargiak dü argi,  
emanen deikü aski  
gük elkar maita dezagün beti.

**Baratze bat...**

## **5.- BATASUNA**

(Hitzak eta musika: Telesforo Monzon / Pantxoa eta Peio)

**Aupa gizona, jeiki mutil  
atzar emazte ta neskatil,  
borrokarako dei eginaz  
irrintzi bat dabil.  
Euskal Herria diagu zai  
presoak eta hilak ere bai  
abertzale izan ezkeru gaur,  
gauden denok anai.**

Borrokari luza zaidak eskua,  
hona hemen nerea zabalik.  
Euskaldunok banan banan hiltzea,  
otso beltzak ez dik beste nahirik.  
Euskadiren alde loturik bagare,  
goaz borrokara nagusituko bait gare!  
Gerokoak geroko utzi,  
gaur herriak ziok: "nahi diat bizi"!

**Aupa gizona, jeiki mutil...**

Otso beltza gauaren gauaz heldu,  
artzainak zebiltzala kalakan...  
goizean goiz, odolez gorrituak,  
hamaika ardi hilak belardian...  
Artzain kalakari, otsoak iduri,  
har makila eskuan eta lotu etsaiari,  
anaien aurka ez habila,  
otso beltzarentzat atxik makila!

**Aupa gizona, jeiki mutil...**

Agur, agur! andere askatasuna!  
Agur, agur! biharko Euskadi!  
Iguzkitan dantzatuko gaituzu,  
errana diot maiteñoari,  
besoak loturik, ez dugu bestarik,  
nola dantzatuko biok belaunikaturik?  
Lehenik urratu katea,  
gero libro izanen dantza egitea!

## **6.- EKI EDER**

(Hitzak: B. Sarasola / Musika: Pier Paul Berzaitz)

Udazkenean mendiak  
urtxoen eho tokiak  
sare eta ihizlariak  
alde guzitan gordeak  
berdin ditugu etsaiak  
gordagian jarriak  
gure seme ta alaben...  
oi ebasleak

**Eki eder sutan bero  
euskaldun bihotzak oro  
gudukari diten gero  
bilaka gau egunero (bis)**

Su pindarraren indarrak  
duelarik sortzen su garra  
preso ezarri gatua  
nola den amorratua  
berdin dira euskaldunak  
gizonak hoberenak  
baina agertzen zimizta...  
ziztatu eta.

**Eki eder.....**

Bururatu da guretzat  
ilusionen denbora  
jaun haundi bat Parisetik  
jinen zela salbatzera  
nunbaiteko zeruetan  
balin bada jainkorik  
guk ez dugu sinetsiko...  
nagusi denik





## **7.- ERRIBERA**

(Hitzak eta musika: Benito Lertxundi)

Erribera, Erribera!  
Zure landen zabalera  
Ortzi-muga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan  
isurtzen diren asmoak,  
gogotsu hartukoal ditu lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek  
gorderik duten antzina,  
hats tristetan mintzo da haren mina.

Oooo...

Horma zahar arraituetan  
txoriak dira kantatzen,  
mendetako lo geldia salatzen.

Nafarroa anai za\_harra  
kondairaren lehen zuztarra  
bego higan arbasoen amets hura.

Oooo...

## **8.- EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

(Hitzak: Xabier Amuriza / Musika: Oskorri)

Euskal Herrian euskaraz  
nahi dugu hitz eta jolas,  
lan eta bizi euskaraz eta  
hortara goaz,  
bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.  
Zabal bideak eta aireak  
gure hizkuntzak har dezan arnas,  
bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara  
hitz egiterik ez bada  
bota dezagun demokrazia  
zerri askara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.  
Hizkuntza gabe esaidazue  
nola irtengo naizen plazara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna  
irabazteko eguna  
pazientzia erre aurretik  
behar duguna,  
ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?  
Zer Euskal Herri litzake bere  
hizkuntza ere galtzen duena.  
Ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?

## **9.- LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA**

(Hitzak eta Musika: Telesforo Monzon / Pantxoa eta Peio)

Gazte bat lurrean aurkitu dugu  
Lore gorritz beterik kolkoa  
Burdinen atzetik ihesi dator  
Euskal gazteriaren oihua  
Mutilak eskuak elkar gurutza  
Egin ta bultza denak batera  
Bidean anaia erortzen bazaik  
Lepoan hartu ta segi aurrera

**Tria lara tria lara la la tria lara**  
***Lepoan hartu ta segi aurrera. (bis)***

Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik  
nor geran, zer geran aitortzeko  
ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak  
kataiaz loturik ibiltzeko.  
Gizonak bagera, jozagun aurrera  
gure herriaren jabe egin arte  
askatasunaren hegal azpian  
kabia egiten ohituak gare  
ibiltzen aspaldi ikasia dugu  
otsoak eskutik hartu gabe.

**Tria lara tria lara ...**

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute  
isilduko gaituztelakoan,  
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz  
nere hiltzailearen aurrean.  
Mutila etzazu nigarrrik egin  
erortzen banaiz gau ilunean,  
izar berri bat piztutzero noa  
Euskal Herriko zero gainean.(3bider)

**Tria lara tria lara ..**

## **10.- NON GERATZEN DEN DENBORA**

(Hitzak eta musika: Mikel Urdangarin)

Gure baitango lurraldetan  
non geratzen den denbora  
non ez dagoen arnas biderik  
non ez goazen inora  
non oihukatzen hurbiltzen garen  
erraldoiaren ondora  
igo nazazu nire mendira  
zure gailurretik gora.

Egunez zu bizitzera  
arimak zenbatzera  
urrun nabigatzera  
elur gazietan.

Igo nazazu nire mendira  
aurki dezadan bidea  
askatu nadin zure loturaz  
behar dezadan airea  
ez nadin izan jainko lurtiarra  
bai ezinen bidaidea  
igo nazazu nire mendira  
zu ez baitzara nirea.

Egunez zu bizitzera  
azken mugen ertzera  
*lainoen agurtzera*  
*elur gazietan. (bis)*

## 11.- OÑATIKO KALE ETA BASERRI-AUZOAK

(Letra eta musika: Herrikoia)

Goizean kantatzen du txori argitsuak (bis)  
*erantzuten diola birigarrotxuak* (bis)

Zikirixo mosuak Garagaltza-auzokuak (bis)  
*Baba zorruak dira Urruzulakuak* (bis)

Kontrabandista fama Araotzekuak (bis)  
*Esamiñadoriak Goiko mendikuak* (bis)

Bixen bittartekuak Uribarrikuak (bis)  
*Bustin zakatzailliak Lezesarrikuak* (bis)

Laixari famatuak Berezaokuak (bis)  
*Morena graziosa Murgi-betekuak* (bis)

Neskatilla panposak Olabartakuak (bis)  
*Bustanikarak dira Larraña-auzokuak* (bis)

Serbilleta mosuak Torre-auzokuak (bis)  
*Perretxikuzale Mendiko-kalekuak* (bis)

Banastagiñ onenak Santamañakuak (bis)  
*Kale garbitzailliak Kalebarrikuak* (bis)

Neskarik ederrenak Lekunberrikuak (bis)  
*Txokolate jantzaille Kalezarrekuak* (bis)

Ipurtaundixak dira Goribar-auzokuak (bis)  
*Berbarik leunenak Zañartu aldekuak* (bis)

Bidietako txixaiñak Garibaikuak (bis)  
*Fraka zuridunak Zantxolopiztikuak* (bis)

Kale merienda egille Zubillagakuak (bis)  
*Errondari fama Aurreko mendikuak* (bis)

Horra hogetasei bertso guztiak egiak (bis)  
*Onrak merezi dizkik Oñatiko herriak* (bis)

## 12.- SALAMANKARA

(Herrikoia)

Gazte gaztetik aitak ta amak  
fraile ninduten nonbratu  
bai eta ere Salamankara  
estudiante bidaldu.

*Salamankara nindoalarik  
bidean nuen pentsatu  
estudiante tunante baino  
hobe nuela ezkondu. (bis)*

Ostatu xume polit batean  
gosez gelditu bainintzen  
neska xarmant bat ari zitzaidan  
mahainean zerbitzatzen.

*Begiak gartsu, ezpainak lore,  
enekin aise mintzatzen  
aingeru hori ordu berean  
ene bihotzean sartu zen. (bis)*

Hitz erdi batez maite nuela  
erran nion belarrira  
baina, gaixoa, herabetua  
ihes joan zen kanpora.

*Ez ahal nauzu, izar ederra,  
kondenatzen infernura!  
Ez da sekulan ene gogotik  
ahaztuko zure itxura. (bis)*

Aita Jainkoak egin banindu  
zeruetako giltzari  
azken orduan jakingo nuen  
atea nori ireki.

*Lehenengo aitari, gero amari,  
gero anai-arrebari,  
ta azken orduan isil-isilik  
nire maite politari. (bis)*



### **13.- TOPA DAGIGUN**

(Hitzak: Jon Sarasua / Musika: Oskorri)

Errioxar, Baigorriko,  
Bakio nahiz Getariko,  
*topa dagigun eta bakean*  
*bizi gaitezen betiko. (bis)*

Umeak arretaz horni,  
gazteei hitza eskeini  
*gaztetxoago eta haurrago*  
*izan gaitezen geroni. (bis)*

Errioxar, Baigorriko...

Ez uka amonei hitzik,  
entzun agureei pozik,  
zaharra ez da izandakoa,  
luzaroan dena baizik (bis).

Errioxar, Baigorriko...

Jerarkia da lehorra,  
harremana emankorra;  
*errespetuan dago gordeta*  
*emakumeen altxorra! (bis)*

Errioxar, Baigorriko...

Antolatzailea:



Laguntzailea:



**OÑATI**  
dabilen herria